

DEIALDIA

FENAVIN

2017

Ciudad Real

Egunak: 2017ko maiatzak 9tik 11ra.
Lekua: Ciudad Realeko Azoka Eremua
Maiztasuna: Bi urtez behin
Norentzat: ardogintza industriako
profesionalentzat
Izena emateko epea:
osteguna, 2016ko urriak 20an
Parte-hartze prezioa:
500 € + %21 BEZ
Azokaren web orria:
www.fenavin.com

Informazio gehiago: Nora Goitia / Maite Jaio
agroa@camarabilbao.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Parte hartzeko baldintzak

Parte-hartze eredua eta prezioa

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Eskainitako zerbitzuak

Izen-emate formularioa



Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak enpresen parte-hartze multzokatua antolatu du FENAVIN 2017 azokarako, Euskal Elikadura Industria kanpoan sustatzeko ekintzen barruan.

Azoka **Ciudad Realen** izango da, **2017ko maiatzaren 9tik 11ra**.

FENAVIN 2017 azokaren izaera

Erakusketa eremua: 30.000 m²

2015eko erakusketariak: 1.361 upategi

2015eko bisitariak: 65 herrialdeko 15.000 profesional

Azokaren web gunea: www.fenavin.com

FENAVIN Espainiako ardogintzaren sektorearen erreferentziazko azoka da. Ardogintzaren industriaren profesionali zuzenduta, azoka oso interesgarri da upategi mota guztientzat, bai atzerrian inportatzaile bat dutenentzat, bai kontakturik ez dutenentzat, bisitari gehienak atzerritarrak baitira jatorriz.

FENAVIN 2017 publiko profesionalera dago zuzenduta eskusiboki, eta sektoreko erosle profesional ugari erakartzen ditu. Gainera, feriak aukera ematen du atzerriko erosleekin harremanak egiteko eskatzeko eta, horrela, irauten dituen hiru egunetan bileren agenda bat itxi daiteke, "Kontaktatu erosleekin" programaren bitartez.

FENAVINen 2015eko edizioan 1.361 upategi egon ziren 30.000 metro koadroko erakusketa esparru batean, eta 65 herrialdeko 15.000 bisitari baino gehiago joan ziren.

Parte-hartze baldintzak

Joateko konpromisoa
Euskal Herrian egindako produktuak
Ebaluazio-inkesta

Egoitza soziala Euskal Herrian duten eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta dauden **ekoizpen-enpresek** bakarrik parte har dezakete ekintza honetan.

Azoka baino lehen:

- Enpresako ordezkari bat joateko eta kuota ordaintzeko konpromisoa; beraz, **Euskadiren pabiloian sartu izana jakinarazi eta gero ezin da ekintzan baja eman.** Ezinbesteko kasuetan soilik baloratuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzea aztertu.
- Enpresek derrigor egon behar dute bertan muntaketa-egunean, adierazitako orduan produktuak jasotzeko eta erakusmahaiak azokaren inaugurazioa hasi baino dezente lehenago dekoratzeko.

Azokak iraun bitartean:

- Ikusgai jarriko diren produktuak **Euskal Herrian egindakoak** izango dira. Ezingo da, inolaz ere, beste autonomia erkidegoetako produkturik aipatu edo aurkeztu.
- Azokak iraun bitartean erakusmahaia egunero eta ordutegi osoan zainduko da.
- Azoka amaitutakoan, produktu guztiak behar bezala jasoko dira eta erakusmahaiaren elementuak jasotako baldintzetan itzuliko dira.

Azokaren ondoren:

- **Ebaluazio-inkesta** bete, eskatzen denean.

Parte-hartze eredua eta prezioa

Stand partekatua

Kuota = 500€ + % 21 BEZa

Parte-hartze eredua

Eusko Jaurlaritzak 2017ko edizioan hartuko du parte, kalitateko ardoak (sor-markakoak), sor-markako txakolinak eta/edo bestelako edari alkoholodunak ekoizten dituzten Euskal Herriko Ardogintza Industriako enpresak hartuko dituen 165 m² -ko 7. pabiloian (GAMINEDES).

Gure ardoak nazioartekotzea Eusko Jaurlaritzaren apustu garrantzitsutzat jotzen da, eta, horregatik, jarduerari babesa handia ematea eta parte hartzeko eredu hau planteatzen da:

Stand PARTEKATUAren eredua, eta horren barruan:

- erakusmahaia upategi bakoitzeko (enpresen arteko tabike banatzailerik gabe)
- enpresa erakusleek partekatutako biltegia (apalategi eta hozkailuekin)
- elkargunea mahaiekin eta aulkiekin enpresa erakusleek partekatzeko.

Parte-hartzearen prezioa

FENAVIN 2017 azokan, parte hartzea hurrengo kostua izango du:

- Kuota = **500€ + %21 BEZa**

Parte-hartze kuota ordainketa bakarran egingo da. Faktura eskaera onartu ondoren egingo da.

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Izen-emate formularioa, behar bezala beteta

Ordainketa-egiaztagiria

Izena emateko azken eguna: **2016ko urriaren 20an**

Parte hartzeko interesa baduzu, lekua mugatua denez, izena-emate formularioa bete eta ordainagiria ahalik eta azkarren bidaltzea gomendatzen dugu, Nora Goitia edo Maite Jaiori: **agro@camarabilbao.com**

Enpresa parte-hartzaileen hautaketa izen-emate agiriari jasotze hurrenkeraren arabera egingo da. Zure eskaria kontuan hartzeko, honakoa aurkeztu behar duzu:

1. Izen-emate formularioa bete

Informazio horretatik bertatik transkribatuko dira datuak azokaren katalogo ofizialerako eta sustapenerako lantzen diren gainerako elementuetarako.

Izen emate formularioa



2. Izen-emate kuotaren ordainketa-egiaztagiria (500 € + % 21 BEZ)

Ordainagiria Nora Goitia edo Maite Jaiori zuzenduta bidali emailaz: **agro@camarabilbao.com**

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da:

Kontzeptua: "Enpresaren izena + FENAVIN 2017".

Kontu zenbakia: ES97-0182-1290-36-0000017727 (BBVA) BILBOKO MERKATARITZA GANBERAren izenean.

Izena emateko azken eguna: 2016ko urriaren 20an.

Dagokion zenbatekoaren faktura parte hartzea baieztatu eta gero.

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

GARRANTZITSUA:

Eskatutako agiriak bidaltzeak EZ DAKAR enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartzea, gutxieneko enpresa-kopuru bat beharko baita parte hartzeko. Eusko Jaurlaritzak jakinaraziko du izen-ematea onartu den edo ez.

FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, EUSKAL HERRIKO PABILOIAN SARTU IZANAREN JAKINARAZPENA, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN DION ENPRESAK ORDAINDUTAKO GUZTIA (%100) GALDUKO DU. Ezinbesteko kasuetan bakarrik egongo da enpresak emandako arrazoiak aztertze eta ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera.

Honako kasu hauetan bakarrik itzuliko da enpresek ordaindutakoa:

- Enpresa erakusketariak eskatutako espazioa Azokaren antolatzaileek Eusko Jaurlaritzari emandakoa baino handiagoa bada, enpresa hautatuak eskubidea edukiko du aldez aurretik ordaindutako izen-emate kuota itzul diezaioten.
- Halabeharrez edo parte-hartzaile kopuru nahikoa ez edukitzeagatik, Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartzeari uko egiten badio, enpresek eskubidea edukiko dute ordaindutako guztia (%100) itzul diezaieten.

Eskeinitako zerbituak

Eremuaren kontratazioa

Pabiloiaren dekorazioa

Pabiloia mantentzea

Eusko Jaurlaritzak honako zerbitzu hauek eskainiko ditu:

Eremuaren kontratazioa

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako stand partekatuetan banatuko da.

Pabiloiaren dekorazioa

Standa hornitzeko dekorazioa eta oinarritzko altzariak uniformeak izango dira EAEko erakusle guztientzat.

Pabiloia mantentzeko lanak (garbiketa, elektrizitatea etab.)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzuak, elektrizitatea, etab., eta, oro har, pabiloia egoki mantentzeko lanak.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehienezko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie ko-erakusleei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean.

Oharra: oinarritzko altzariak, elementu elektrikoak edo behar elektrikoak aldatzen badira, kostuaren igoera edo aldaketa eragiten badu, dekoratzaileak zuzenean fakturatuko dio enpresa erakusleari, eta enpresa horren kontu izango da zenbatekoaren igoera.

Eskeinitako zerbituak

Salgaien garraioa

Kopa eta listu-ontzi zerbitzua

Azokako katalogo ofizialean eta bestelako zerbitzuetan sartzea

Komunikazio kanpaina

Salgaien garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte. Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira.

Garraioaren kontratazioa indibiduala izango da; ondorioz, garraiolariak zuzenean bidaliko dio enpresa erakusleari merkantzia bidaltzearen kostua, eta zerbitzua enpresaren kontu joango da.

Kopa eta listu-ontzi zerbitzua

Eusko Jaurlaritzak koordinatuko du enpresa erakusketarientzako kopa eta listuontzien alokatzea, alokatze horren kostua erakusketariaren kontura izanik. Azokak fakturatuko dio zuzenean zerbitzua erakusketariari.

Azokako katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapideak egingo ditu azokan izango diren enpresa erakusketari guztiak azokaren antolatzaileek argitaratzen duten katalogo ofizialean, azokako erakusketari guztiak biltzen dituen, ager daitezen (IZEN-EMATE FORMULARIOtik jasotako datuak agertuko dira).

Gainera, egin beharreko gestioak egingo ditu gure azoken presentzia ferian ahalik eta gehien errentabilizatzeko, eta informazio zehatza emango du azokak promoziorako ematen dituen aukera guztiez.

Komunikazio kanpaina

Eusko Jaurlaritzak komunikazio masiboko kanpaina bat egingo du, prentsa espezializatuari eta balizko erosleei azokako gure presentziaren berri emateko, eta bisitatzera eta gure ardoak dastatzera gonbidatuko ditu.